

Batasuneko berrikuntza adierazleen panel berriaren – IUS 2010-arabera Euskal AE 15.aren mailan da 27-EBn

Euskal AE berrikuntza handidun herrialdeen taldean litzateke, baina behealdeko muga


Europako berrikuntza adierazleen panela: Euskal AEn Europako berrikuntza adierazleen panel berriaren –IUS 2010- arabera Euskal AEn balioa 0,45 da 2010ean, Eustaten datuen arabera; horrela 27-EBn 15.aren mailan litzateke, batez bestekoaren (0,52) azpitik.

27-EBko estatuak puntuazioaren arabera, lau kategoriatan sailka daitezke: Aurrenekoa, **berrikuntza liderrak**: Suedia (0,75), Danimarka (0,74), Finlandia (0,70) eta Alemania (0,70). Europako benetako liderra (0,83) Suitza da, EBtik kanpo.

Bigarrena, **berrikuntza handidunak** (0,62-0,45): Erresuma Batua, Belgika, Austria, Herbehereak, Irlanda, Luxenburgo, Frantzia, Zipre, Eslovenia, Estonia. Hemen legoke Euskal AE, azken postuan.

Hirugarren, **berrikuntza apaldunak**: Portugal, Italia, Txekiar errepublika, Espainia, Grezia, Malta, Hungaria, Polonia, Eslovakia. Laugarrena, **berrikuntza txikidunak**: Errumania, Lituania, Bulgaria, Letonia.

1. grafikoa. Batasuneko Berrikuntza Panela IUS 2010. Euskal AE eta 27-EB



Iturria: Eustat eta PRO INNO Europe: INNO-Metrics. Europar batzordea

Giza baliabideak, Enpresa inbertsioak eta Loturak eta enpresa-ekimena dira euskal berrikuntzaren hiru funtsezko dimentsioak

Batasuneko Berrikuntza Adierazleen Panel berria –IUS 2010- hiru bloke nagusitan egituratzen da, zortzi dimentsio, 25 adierazle. Estatuen gaitasuna neurtzen du, berrikuntza-jarduerak garatzekoa.

1. taula. Batasuneko berrikuntza panela IUS 2010. Bloke eta dimentsioak

	27-EB	Euskal AE	Espainia
Berrikuntzako Adierazleen Panela (IUS 2010)	0,52	0,45	0,39
Bideratzaileak	0,57	0,50	0,49
Giza Baliabideen Adierazleak	0,54	0,57	0,41
Ikerketa sistema	0,55	0,53	0,55
Finantziarioa eta Laguntza	0,63	0,34	0,52
Enpresa Jarduerak	0,46	0,40	0,27
Enpresako Inbertsioak	0,46	0,50	0,26
Loturak eta Enpresa-Ekimena	0,41	0,43	0,18
Aktibo intelektualak	0,50	0,31	0,35
Outputs	0,53	0,44	0,45
Berritzaileak	0,50	0,40	0,33
Eraginak Ekonomian	0,54	0,45	0,50

Iturria: Eustat eta PRO INNO Europe: INNO-Metrics. Europar batzordea

Giza baliabideak, Enpresa inbertsioak eta Loturak eta enpresa-ekimena dira euskal berrikuntzaren hiru funtsezko dimentsioak, europar batez bestekoarekiko. Gainerakoan, erkidegoaren puntuazioa Europar Batasunekoaren azpitik dago.

Euskal AEko berrikuntza: **Giza baliabideetan** pertsonen kualifikazioa, hezkuntza neurtzen da, berrikuntzarako datu giltzarri gisa. Euskal AEn hirugarren mailako hezkuntza duen 30-34 urte bitarteko biztanleak %41,0 dira; Europako batez bestekoa %32,3 da. Goi-mailako bigarren hezkuntza gainditu duen 20-24 urte bitarteko gazteak %78,3 dira erkidegoan eta %78,6 27-EBn, oso antzekoa.

Enpresako inbertsioan berrikuntzara bideratutako inbertsio-ahaleginak daude, bai I+Gn, bai tankerakoetan. Euskal AEn BPGrekiko I+G gastu pribatua %1,51 da; %1,25 Europan, batez beste.


Loturetan eta enpresa-ekimenetan enpresa pribatuen arteko eta horien eta sektore publikoaren arteko harreman eta lankidetzak neurtzen da. Hemengo emaitzak eta Europako batez bestekoa oso antzekoak dira.

Gainerako dimentsioetan puntuazioa Europako batez bestekoaren azpitik dago, baina hortxe ere badira zenbait adierazle non Euskal AEk puntuazio berdintsuak edo hobeak dituen, beti ere Europar Batasunarekiko:

- .- Nazioarteko ko-argitalpen zientifikoak
- .-EBtik kanpoko doktoreak
- .-EBko merkataritza markak, BPGren bilioiko
- .-ETE berritzaileak, produktuan edo prozesuan

- .- Enplegua ezagutza intentsiboko jardueretan
- .- Goi- eta maila ertaineko teknologia esportazioak
- .- Ezagutza maila altuko zerbitzu esportazioak

2. grafikoa.- Berrikuntzaren dimentsioak, Euskal A.En eta 27-EBn. Batasuneko berrikuntza adierazleen panela IUS 2010



Iturria: Eustat eta PRO INNO Europe: INNO-Metrics. Europar batzordea

Badira, oraindik ere, EBko batez bestekoaren azpitik dauden adierazleak.

Finantzaketa eta laguntza dimentsioan izandako balioak, bai sektore publikoak I+Gn egikaritutako gastuan BPGrekiko portzentajea, bai arrisku-kapitalaren eskuragarritasunean, Europako batez bestekoaren azpitik daude. Eraginak ekonomian dimentsioan, merkaturako edo enpresarako berriak diren produktuen salmenten negozio-zifra Europako batez bestekoaren azpitik dago; baita ere Aktibo intelektualen dimentsioan BPGren bilioiko patente-eskariak. Azkenik, Berritzaileen dimentsioan, marketin edo antolaketan ETE berritzaileen portzentajea ere azpitik dago.

Ohar metodologikoa: Batasuneko Berrikuntza Adierazleen Panel berria –IUS 2010- hiru bloke nagusitan egituratzen da, zortzi dimentsio, 25 adierazle. EIS 2009rekiko aldeak funtsezkoak dira, bai dimentsioetan, bai adierazleetan. Beraz, adierazle-panel hau ez da aurrekoekin alderagarri. Hona hemen IUS 2010 berriaren egitura:

“Bideratzaileak”. Dimentsio hauek osatzen dute: **Giza baliabideak, Ikerketa sistemak, Finantzaketa eta laguntza.** Adierazleak 8 dira.

Enpresa jarduerak. Hiru dimentsiotan zatitzen da: **Enpresako inbertsioak, Loturak eta enpresa ekimena, Aktibo intelektualak.** 9 adierazlek osatzen dute.

Outputak. Dimentsioak **“Berritzaileak”** eta **“Eraginak ekonomian”** dira, 8 adierazle.

Bloke eta dimentsio bakoitzerako, baita indize orokorrerako ere, adierazle sintetiko edo konposatu bat kalkulatzeko da, zeinaren balioa 0-1 bitartekoa izango baita, eta metodologia bera erabiltzen da Europako herrialde guztietan. Adierazle bakoitzaren erreferentzi urtea bera da herrialde guztietan (2007, 2008 edo 2009, adierazle bakoitzerako jarritako azken erreferentzi urtearen arabera).

Europako Batasuneko 27 estatuarekin kalkulatzeko da, gehi Turkia, Mazedonia, Serbia, Kroazia, Norvegia, Islandia eta Suitza. Helburua estatu horiek sailkatzea da, berrikuntza-jarduerak egiteko duten gaitasunaren arabera.

Euskal AErako europar metodologia erabili da, europar testuinguruan berrikuntzaren arabera kokatzeko.

Innovation Union Scoreboard, IUS 2010

<http://www.proinno-europe.eu/inno-metrics/page/innovation-union-scoreboard-2010>

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Haritz Olaeta Goiriena

Tel.: +34-945-01 75 02 Faxe: +34-945-01 75 01

[IUS berrikuntza panelari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)